



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **UDALBATZAK 2016KO MAIATZAREN 12AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
Miren Itziar Arratibel Imaz  
Jesús Peñagarikano Labaka  
Arkaitz Fraile Quijera  
Hanot Karrera Amondarain  
Irati Ozaita Azpiroz  
Maria Iciar Jauregui Huarte  
Juan Luis Cid Conde  
Eleuterio Sanchez Garcia  
Victoria Rodriguez Feloaga

### **BITARTEKO IDAZKARI :**

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, **bi mila eta hamaseiko maiatzaren hamabian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ez-ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

*Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:*

### **1.- Ibarra herri-bideen sarearen inbentarioaren onarpena**

### **2.- Galde-erreguak**

### **LEHENENGOA:**

### **IBARRAKO HERRI-BIDEEN SAREAREN INBENTARIOAREN ONARPENA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2015eko azaroaren 13an eginiko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak, besteak beste, Ibarra herri-bideen sarearen inbentarioa gainbegiratzeko erabakia hartu zuen. 2016ko apirilean esleituriko enpresak herri-bideen sarearen inbentario aurkeztu zuen.

2016ko maiatzaren 9an Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordeak, Conchi Uriarte andreak aurkeztutako inbentarioa ontzat eman zuen.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin ( 6 BILDU eta 4 EAJ-PNV ) honako hau

#### ERABAKITZEN DU

**LEHENA:** Behin behineko onarpena ematea, 2016ko apirilean Conchi Uriarte andreak aurkeztutako Ibarra herri-bideen sarearen inbentarioari.

**BIGARRENA:** Ibarra herri-bide sarearen inbentarioaren onarpena jendeurreko tramitean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita eta hilabeteko epean, interesatuek bidezko deritzaten erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten ( Errege Dekretu 1372/1986 ko 50-52 arti)

**HIRUGARRENGOA:** Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki berririk hartu gabe erabaki hau behin betiko onartuta geldituko da.

#### **BIGARRENA:**

#### **GALDE-ERREGUAK**

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamalau direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.